

ERRIRIK-ERRI

Inglaterra'ko
ibillaldian

TXOMIN GARMENDIA

Agorraren 20'ean, Londres'tik 300 bat kilometrotara dagon Hereford errira joan giñan ango sagardotegi eta sagastiak ikusi asmoz. Taunton eta Hereford, nazioaren alde banatan dauden erriak dira, eta batez ere azkenengo ontara joatea etzitzagun damutu. Ez orixe.

Milla ta irureun langille zitun sagardotegi batera joan giñan alajaina. Au sagardotegia ez baiño pabrika aundi bat da. Ogei ta amar sagardo klase egiten dituzte eta mundu guztira zabaltzen dute sagardoa. Ez gurearen antzeko botilletan; plastikozko botillak, kristalezkoak, aundiak, txikiak, bitartekoak eta neurri guztietakoak erabiltzen dituzte. Inglesa ez omen da patar zalea eta emen galbadosik ez dute egiten. Bat ere alkoolik ez dun sagardoa ere egiten dute txoperrantzako eta abar.

Eun eta amar upel ikusi genitun, berreun eta irurogei milla litrotakoak. Eta andik aparte zeuden ormigoizko eta abar? Petroleo pabrika baten ikusi litezen tuberiak eta abar ikusi litezke sagardotegi ontan. Gure sagardotegietako irudi bat buruan eraman genduentzat, arrigarri benetan.

Sagardoa egiten asi gabeak zeuden emen ere, laister asiko zirala esan baziguten ere. Gaiñerako makinak laneak ikusteak gozatu gindun ordea. Badago buru argiko gizonik munduan!

Pabrika ontako zuzendariak oso arrera ona egin ziguten; museo eder bat ere bertan daukate, sagardo munduko denda bat ere bai ezer erosi nai dunarentzat, mostradore eta jan-gela dotorea daukatenez bazkaltzeko exeri giñan. Emen bazkari polita eman ziguten, naiko sagardo ere bai. Nai dan aiña botil badauzkate, baiña emengo mostradoretan kanilletik zerbeza artzen dan bezela artzen da an sagardo asko. Zer moduzko sagardoak ziran? Baziran sagardo politak eta danak oso garbituakedo, txanpanatuak. Gure sagardo eta angoak ez daukate iñolako moduz ezkontzerik. Sagardo aiekin ez dago emen luzitzerik, emengoarekin an ezin izango dan bezelaxe. Bakoitza bere lekuan.

Lengo gizaldiaren azken aldera izan zan pabrika onen asera, eta gutxi gorabera, emen ezagutu genitun tresnak ikusten dira museoan. Geroztik ez dituzte badaezbadako aurrerapenak izan.

Gure Gipuzko ontan ere sagardoak badu istoririk asko; eta museo eder bat ez ote litzake komeni? Aldundi eta Udaltxetan ortarako ainbeste diru badabilela esango nuke.

Arratsaldean sagastiak ikustera joan giñan; sagastian ez baiño Paradiisoan sartu giñala zirudin. Zazpireun ektarea sagasti ditu pabrika onek eta guk ikusi gindunak, danak sagar gazteak eta lepaezurreraiño beteak. Ala ere, sagastioiek urtero sagarra berdin ematen zutela jakitearekin geiena arritu giñan. Gure ontan ez baidegu orrelakorik ezagutu.

Zazpireun ektarea sagasti izan arren pabrika onek, bi milla eta lareun ektareako sagastien sagarrak bear ditu urtero. Beraz, sagar erosten ere gogor saiatu bearra daukate. Taunton'en bezela emen ere, aurrez egindako tratoak izaten dituzten basarritarrakin. Etxeko premiak osatuta kanpora sagarrak saltzeko izaten zan galdetu gendunean, etzez erantzun ziguten. Ezkozi'tik ere iñoiz ekartzen omen dute sagarraren zumua, gero nai duten sagardo klasea ateratzeko jakiña. Sagardoak kenduta gelditzen dan patsarekin menbrilloa egiten dute. Alperrik galtzeko ez dute ezer eta aurrera.

Makinaz biltzen dituzte sagar guztiak, eta lan berezia egiten duten iru makina ikusi genitun lanean-sagasti arrigarri oietan. Batek, bi segundotan arbolako sagar guztiak botatzen zitun lurrera, lurretik metro erdi batera enboretik eldu, eta dardar baten bidez. Bigarrenak, aizearen bidez sagar azpiko sagar guztiak erdiko ibiltokira aldatzen zitun eta irugarren makinak, atzean zeramakin traktorea kargatu sagarrez. Onela zion gure arteko sagardogille batek: «Mundu ontan olakorik bear zunik ez nin bereala pentsatukol!».

Pabrika ontan zenbat sagardo egiten duten? Gipuzko'ko sagardogille guztiak ogei urtean egiten dituztenak or urte batean egiten dituzte. Bada zerbait.

Ango sagarraren osasuna eta eman-kortasuna arrigarriak dira berriz esanda ere; orain bi urte landatutakoa sail edera ikusi gendun, eta bapo ematen asia zegon. Itz gutxitan esateko: beste mundu bat ikusi gendun.

Sagardo industriz aparte, nekazaritza besterik ez dun erria da Hereford, eun eta berrogei ta amar biztanlerekin. Zazpi Tolosa baiño geiago bera bakarrik.